# Nafarroako Uraphex by Urtech Water enpresa, TOP101 Spain Up Nation sarietan gizartean eta/edo ingurumenean eragin handiena duen startup gisa aitortua

Nucaps, MOA Foodtech, Genbioma, Ingredalia eta Medical Plasmas ere Nafarroako startup irabazleen artean daude

**Asteartea, 2024ko Azaroaren 5a**




Uxue Itoiz, en el centro, con responsables de las empresas premiadas.

Kordobako Kongresu eta Erakusketa Jauregian egin zen astelehen arratsaldean Eskualde Garapeneko Agentzien Espainiako Elkarteak (ADR Foroa) sustatzen dituen TOP101 Spain Up Nation sariak emateko ekitaldia. Elkarte horretako kide dira CEIN eta Sodena sozietate publikoak eta Berrikuntzako Enpresa Nazionala (ENISA). Bertan, autonomia-erkidego guztietako erakundeetako ordezkariek 101 sariak eman zizkieten beren lurraldeetako startupei. Nafarroaren aldetik, Uxue Itoiz Energiaren, I+G+b enpresaren eta Ekintzailetzaren zuzendari nagusia arduratu zen saritutako Nafarroako sei enpresei aintzatespenak emateaz.

(Albiste honi buruz gehiago jakin nahi baduzu, mesedez kontsulta ezazu gaztelaniazko bertsioa. Goiko nabigazio barra gorrian alda dezakezu hizkuntza).